

Tolosaldea garatzen

HAUTAKETA BATZORDEAREN AKTA (2025-01-21)

Hautaketa prozesuko Merezimenduak (oinarrietako 6-3) fasea) baloratu eta emaitzak onartzeko bilera ospatu da Tolosaldea Garatzen, S.A.n, kontabilitate-teknikari plaza bat lan kontratudun langile finko batekin hornitzeko hautaketa prozesua burutzeko prozesuaren barruan.

Hautaketa Batzordeko kideak:

- Leire Otaegi Larrarte (Lehendakaria)
- Lierni Olano Goikoetxea (Idazkaria)
- Jon Zubeldia Zurutuza
- Garbiñe Mendizabal Ormazabal
- Aimar Arzelus Telleria

Tolosako Apattaerreak industriguneko Lehiberri Zentroan elkartu dira 2025eko urtarrilaren 21ean eguerdiko 13:00tan eta honako aktan jasotzen dira bertan landutako edukiak.

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Administrazio Kontseiluak 2024ko irailaren 16an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, lanpostu bat lan kontratudun langile finko bihurtzeko hautaketa-prozesuaren deialdiaren oinarriak argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (195. Zenbakia, urriaren 9koa) Tolosaldea Garatzen, S.A.ko honako plazarako:

- Kontabilitate teknikaria lanaldi osoan.

Hautaketa prozesu horietan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako izangaien behin-betiko zerrenda onetsi zen, honela osatuta:

- o Iraitz Beobide Guridi
- o Ane Gibelalde Eraso
- o Nerea Goya Oiarbide
- o Elisabeth Machado Iparraguirre

2024ko abenduaren 20an burututako Proba teoriko-praktikoko emaitzak honakoak izan ziren:


HAUTAGAIA	1 ATALA 1 PROBA	1 ATALA 2 PROBA	2 ATALA	GUZTIRA	EMAITZA
MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth	7,34	6,36	9,00	22,70	GAINDITUA
GOYA OIARBIDE, Nerea	5,34	2,50	8,25	16,09	GAINDITUA
BEOBIDE GURIDI, Iraitz	0	0	0	0	EZ GAINDITUA
GIBELALDE ERASO, Ane	0	0	0	0	EZ GAINDITUA

Proba teoriko-praktikoko emaitzak Tolosaldea Garatzeneko web orrian urtarrilaren 15ean argitaratu ziren, eta ezarritako 3 lan eguneko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuenez, emaitzak behin betiko bihurtu ziren automatikoki.

Hautaketa prozesuko oinarrietan aurre ikusitako 6 puntuko 2) ataleko Euskara Proba burutu beharrik ez da izan, prozesuan onartutako izangai guztiek egiaztatu dutelako Euskararen C1 maila.

Ondorioz, oinarrietako 6 puntuko 3) atalean adierazitakoaren arabera, hautatze batzordeak baloratuko ditu Hautaketa-prozesuan aurreko faseak gainditu dituzten hautagaiek adierazi eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak.

Aurkeztutako egiaztagirien azterketa burututa, honakoak dira balorazioak:



Tolosaldea garatzen

HAUTAGAIA	LAN ESPERIENTZIA	PRESTAKUNTZ OSAGARRIA	EUSKARA C2 MAILA	GUZTIRA
MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth	25	4	0	29
GOYA OIARBIDE, Nerea	25	0	0	25

Hori dela eta, Hautaketa Batzordeak

EBATZI DU

Lehenena. Kontabilitate teknikaria plaza betetzeko hautaketa prozesuko oinarrietako 6 puntuko 2) atalean aurre ikusitako Euskara probarik ez deitzea, izangai guztiek egiaztatu dutelako Euskarako C1 maila.

Bigarrena. Kontabilitate teknikaria plaza betetzeko hautaketa prozesuko oinarrietako 6 puntuko 3) atalean aurre ikusitako Merezimendu faseko emaitzak onartzea:

HAUTAGAIA	LAN ESPERIENTZIA	PRESTAKUNTZ OSAGARRIA	EUSKARA C2 MAILA	GUZTIRA
MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth	25	4	0	29
GOYA OIARBIDE, Nerea	25	0	0	25

Hirugarrena. Prozesuan jarraitzen duten izangaiak oinarrietako 6 puntuko 4) eta 5) ataletan aurre ikusitako probak burutzera deitzea: 4) Proba psikoteknikoak eta gaitasun probak; 5) Nortasunaren analisisa eta elkarriketa.

- Lekua: Lehiberri Zentroa (Apattaerreka industrigunea, 20400 Tolosa)
- Eguna: 2025eko otsailaren 10ean
- Ordua: 11:00
- Aurreikusitako iraupena: 3 ordu.

Behin-behineko emaitza hauen aurka interesdunek erreklamazioak jarri ahal izango dituzte hiru egun balioduneko epean, sozietatearen web korporatiboan ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Erreklamazioak eta zuzenketak aurrez aurre aurkeztu beharko dira Tolosaldea Garatzen, S.A.ko bulegoetan (Lehiberri Zentroa, Apattaerreka Industrigunea, 20400 Tolosa).

Erreklamaziorik egiten ez bada, Merezimendu faseko emaitza behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik badago, Hautaketa Batzordeak onartu edo baztertuko ditu arrazoiak emanez, eta berriro argitaratuko dira.

Tolosa, 2025eko urtarrilaren 21a.

Hautaketa Batzordea